

Otietako tuneleko lanetan azaldutako ezusteko berriek honen irekiera atzeratuko dute

- **Segurtasuna bermatzeko lanek aurrera jarraitzen dute**
- **Udalak espero du tunela udararako zabalik egotea**

Andoainen, 24-03-12.- Egun hauetan Otietako tunelaren segurtasuna bermatzeko lanak ari dira gauzatzen. Hasiera batean exekuzio epeak laburragoak ziren arren, lanen konplexutasunak epeen atzeratzea ekarri du, eta gaur gaurkoz ezin liteke adierazi noiz amaituko diren.

Lanen konplexutasun hori da epeen erritmoa markatzen ari dena. Lanen zehar ezusteko berriak agertu dira eta horiek maila goreneko segurtasuna eta zuhurtzia eskatzen dute bere exekuzioan.

Hala ere, udalak espero du, aurreikuspenik okerreanean, udaran tunela zabalik egon ahal izatea. Horretarako lanean jardungo da datozen asteetan.